



ALKATE EBAZPENA 66/2017

ARESOKO UDALA

31876 (Nafarroa)

Areson, 2017ko uztailaren 5ean.

UR ALGUERO CHIVITE, Udalerri honetako Alkate buruak, honen bitartez

ADIERAZTEN DU:

GAIA: ARESOKO UDALAK IZAERA ADMINISTRATIBOA DUEN, EUSKARA EZAGUTZA ETA OPOSIZIO LEHIAKETA BIDEZKO IDAZKARI KONTUHARTZAILEA KONTRATATZEA.

2017ko urtarrilaren 20an, Aresoko udalak, batzar akordio bidez, eraentzea administratiboa duen, euskara ezagutza eta oposizio lehiaketa bidezko idazkari kontuhartzailea kontratatzeke deialdiari hasiera eman zion berau eraendu behar zituen oinarriak eta espedientea onartuz.

Behin hautatze prozedura amaituta eta oinarriak aintzat hartuta, epaimahaiak proposatzen du oposizio lehiaketan puntuazio gehien lortu duen hautagaia kontratatzea eta ondorengoekin lan poltsa osatzea aurrerantzean egon daitezkeen beharrei erantzuteko.

Behin betiko emaitzak eta epai mahaiaren izendatze proposamena aintzat harturik, eta aintzat hartuta, 6/1990 Foru Legeak, ekainaren 2koak, Nafarroako Tokiko Administrazioetako Araubideari buruz 319. artikuluan ezartzen duena eta aintzat hartuta Tokiko Araubidearen Oinarrien Legeak bere 21.artikuluan xedatzen duena eta ezarri beharreko gainerako araudia, honakoa

EBAZTEN DU:

1.1.- Amaia Elkano Garralda, Aresoko udaleko Idazkari Kontuhartzaile bezala izendatu eta kontratatzea.

1.2.- Kontratua 2017ko otsailaren 21ean argitaratutako plantilla organikoan zehaztutako baldintzen arabera egingo da.

1.3.- Kontratazioa 2017ko uztailaren 24ko datarekin gauzatzea.

2.1.- Idazkari kontuhartzaileen lan poltsa eratzea lehendabiziko froga gainditu duten izangaiekin behin behineko ordezkapenak edota izaera administratibo kontratua egiteko.

2.2.- Lan poltsak jarraian zehazten den lehentasun hurrenkera izatea:

1	Itziar Etxegarai Ugarte
2	Irantzu Arrizabalaga Gainza

3.- Interesatuei jakinaraztea beren ezagutzarako eta behar den tokian ondorio egokiak sor ditzan.



Horren guztiaren berri izan dezazun eta dagozkion ondorioak sor ditzan jakinarazten dizut; deialdi honen aurka errekurtsio hauetakoren bat jarri ahalko da:

1.- Aukeran, eta beti ere hilabeteko epean, Berraztertze errekurtsioa, egintzaren organo egileari zuzendua, edo Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua.

2.- Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Sailari zuzendua, bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita, aurreikusitako kasuetan salbu.